

NOLA LOR LITEKE ERABATEKO INKLUSIOA EUSKAL PILOTAN?

Olasagasti Ibargoien, Jurgi*; **Fernandez-Lasa, Uxue****; **Nabaskues Lasheras, Itsaso*****
eta Usabiaga Arruabarrena, Oidui***

*Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

**Deustuko Unibertsitatea

***Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Harremanetarako helbide elektronikoa: jurgi.olasagasti@hotmail.com

Arloa: Gizarte kirola eta kirol dutako gizartea.

Laburpena: taldearteko harremanek jarduera fisiko inklusiboen testuinguruan zuten eragina aztertu zen ikerketa honetan. Euskal pilotan ziharduten 15 pilotari, zazpi emakume ez federatu eta 8 gizon federatu, elkarrizketatu ziren talde eztabaida formatuan. Emaitzak taldearteko harremanen teoriaren araberrako kategoriei jarraiki antolatu ziren. Galdekatuek adierazi zuten hainbat baldintza betetzeak inklusibitatea bermatzen lagunduko lukeela: desgaitasuna duten pertsonak estatus bereko ikusteak, helburu komunak edukitzeak, taldekide sentiarazteko kideen artean elkar laguntzeak, (in)formazioaren gaintetik elkar ezagutzeko esfortzua egiteak eta edonori adiskide izateko aukera eskaintzeak. Taldekideen arteko harremanak partaideen aurreiritziek baldintzatzen zituzten askotan, baina izandako esperientzia puntualek asko laguntzen zieten horiek ekiditen. Aurrera begira, kontuan hartu beharko litzateke proiektu inklusiboak diseinatu eta abian jartzean epe luzerako jarduerak eragin positiboagoak dituztela.

Gako-hitzak: jarduera fisikoa, inklusibitatea, adimen urritasuna, taldearteko harremanaren teoria.

Sarrera

Partaide bat talde batean onartzeko, berauen arteko harremanak nola gauzatzen diren jakiteak garrantzia berezia izan dezake, ezagutza hori partaideen arteko erlazioa positiboa izateko gakoa bilaka baitaiteke. Allporten taldearteko harremanaren hipotesia (1954) ekarpen berritzailea izan zen, eragina positiboa izan zedin egoera zehatz horretan ezinbestean kontuan hartu beharreko lau baldintza –estatus berdintasuna, helburu komunak, taldearteko kooperazioa eta autoritateen, legeen edo ohituren laguntza– eman behar zirela adierazi baitzuen. Geroztik, ordea, taldearteko harremanaren teoriak hainbat zehaztapen jaso ditu, Pettigrew (1998) eta kideek (Pettigrew, Tropp, Wagner eta Christ, 2011) egindakoak kasu. Bere esanetan Allporten hipotesiak baditu zenbait hutsune edo arazo –sekuentzia kausalari, aldagai independentea zehazteari, aldaketa prozesu zehaztugabeiei edo eraginaren orokortzeari dagozkienak, besteak beste– eta horiei erantzute aldera, kontuan hartu behar dira kontaktuaren (harremanaren) bidez abian jartzen diren elkarrekin erlazionatutako lau prozesu jarraia aldaketa bideratzen dutela. Prozesu hauek –kanpoko taldeari buruzko ikasketa, portaera aldaketa, lotura afektiboak sortu eta talde barneko partaideak birrebaluatu– gainera, esanguratasun ezberdina izan dezakete kide berri bat talde batekin harremanetan jartzean,

elkarren artean gainjarriz eta modu konplexuetan elkar eraginez. Hala nola, harremanak aurreiritziak gutxitu ditzake ikaskuntza berriek kanpoko partaide bati buruzko ikuskera negatiboak zuzentzen dituenean. Pettigrewek (1998), aurrez aipatu aldaketak eta beste alderdi batzuk kontuan hartuta, taldearteko harremanen teoria birformulatu zuen, besteak beste, adieraziz harreman eraikitzaileek erlazio handiagoa dutela erlazio estua duten epe luzerako harremanekin eta ez hainbeste bat-bateko erlazio puntualekin. Bide honi jarraiki, taldearteko harremanen teoriak denboran zehar emango den prozesua hartu behar du kontuan: a) hasiera batean inguruneke errazteko eta ezinbesteko alderdiak zein parte-hartzaileen esperientziak eta ezaugarriak ezagutu behar dira; b) hasierako harremana eman ohi da ostean eta honek aurreko kategoria galtzea dakar, hasierako antsietatea eta orokortuko ez den elkartzea ekarri; c) egonkortutako harremanak hartuko dio lekua hasierako harremanari, sortze bidean den kategoria eraikiz eta orokortuko den aurreiritzi galtzea gauzatuz, eta; d) bateratutako taldean amaituko da prozesua, birkategorizazioa burutuko da eta aurreiritzien gutxitze handiena emango den azken aldia izango da.

Gizarteko harreman aukera ezberdinen artean, inklusioa aztergai da, zeinak komunitate bateko pertsona guztiek parte hartzeko aukera berdintasuna izatea inplikatzan duen, haien arteko behar anitzak kontutan hartu gabe (Flem eta Keller, 2010). Izan ere, pertsonen arteko ezberdintasunak naturalizat hartzen dira, haien arteko berdintasunak ezberdintasunen gainetik azpimarratuz. Hain zuzen, giro inklusibo batetan, komunitate bateko partaide guztiak onartuak eta elkarren arteko euskarri bezala funtzionatzen dute (Reid, 2003). Jarduera fisiko zein kirol arloan jarduera inklusiboa “norbanako guztien jarduera fisikoa egiteko aukera berdintasuna bermatzen duen filosofia eta jardunbidea da, beraien adin eta trebetasunak aintzat hartu gabe” (Kasser eta Lytle, 2005). Nazio Batuen Erakundearen 2006ko Eskubideei Buruzko Konbentzioaren 30. artikuluan zehazten denez, bermatu egin behar da urritasuna duten pertsonen sarrera zein parte hartzea izan ditzatela jolas-, aisialdi- eta kirol-jardueretan. Gainera, ahalik gehiena sustatu eta bultzatu behar da partaidetza kirol-jarduera orokorretan, maila guztietan, baina baita “halako pertsonentzako kirol-eta jolas-jarduera zehatzak garatzeari eta jarduera horietan parte hartzeari dagokienez ere. Horretarako, bultzatu egin behar dira gainerakoen baldintza berberetan eskain dakizkien heziketa, prestakuntza eta baliabide egokiak” (Dieringer eta Judge, 2015; Reina, 2014). Azpimarratzekoa da, ordea, azken hamarkadetan hainbat konbentzio sinatu badira ere, oraindik inklusioa ez dela gure gizarteko egunerokotasunaren errealitate bat (Wendelborg eta Tossebro, 2008). Izan ere, inklusioak aldaketa filosofikoa - ideologikoa, politikoa, kulturala- eta praktikoak behar ditu (Haug, 2010). Kirol jarduera orokorretan inklusioaren ezarpen prozesuak onura eta erraztasunak zein zailtasun edo oztupoak dauzka, aldi berean. Faktore ezberdinek baldintzatzen dute inklusio prozesuaren garapena, nola hala faktore pertsonalek, testuingurukoek eta jarduera/eginkizunei dagozkienek. Hori dela eta, pertsonen, testuinguruaren eta zereginen artean emandako elkarrekintzak baldintzatuko du pertsonen gaitasunen egokitzapena eta inklusioaren lorpena (Reina, 2014). Ildo honetan, inklusioaren inguruan kirolaren esparruan taldearteko harremanen teoriaren ikuspegitik egindako ikerlan batean ikusi da harreman zuzena erabiliz urritasun fisikoa dutenekiko jarrera positiboki aldatu dela (Perez-Tejero, 2012).

Orain artekoa kontuan izanda, pilotarien esanetan euskal pilotan erabateko inklusioa lortzea errazten eta zailtzen zuten alderdiak zeintzuk ziren identifikatu nahi izan zen ikerketa honetan, betiere, taldearteko harremanen teorian zehaztutako ezinbesteko baldintzak kontuan hartuta eta aisialdiko zein lehiaketako testuinguruak ezberdindu. Ikerketa honek kirol arloan inklusibitatea bermatzeko estrategiak zehazteko bidea ireki dezake.

Metodologia

Ikerketa honetan euskal pilotan ziharduten 15 partehartzaile elkarrizketatu ziren. Nahita hautatutako laginketaren bidez, ezaugarri ezberdinak zituzten bi talde galdekatu ziren: batetik, aisialdiko euskal pilotako jarduera batean parte hartzen ari ziren 30 eta 60 urte bitarteko zazpi emakumez osatua (hezitzailea barne) eta bestetik, euskal pilotan –federatu mailan– lehiatzen ari ziren klub bateko 16 eta 60 urte arteko zortzi gizonez osatua (delegatua eta entrenatzailea barne).

Datuak jasotzeko talde eztabaida teknika erabili zen. Halaber, elkarrizketa sustatu asmoz ondorengo gaien inguruko galdera sorta (gidoia) erabili zen: desgaitasuna eta desgaitasun intelektuala inguruko ezagutza, euskal pilotan jardutearen arrazoiak, kide berri bat taldean onartzeko baldintzak eta inklusioaren inguruko iritzia.

Prozedurari dagokionez, 2016ko martxoaren lehenengo eta azken astean burutu ziren bi talde eztabaidak. Elkarrizketak gauzatu aurretik partaide bakoitzari ikerketaren oinarriko ezaugarriak azaldu zitzaizkion eta aurrera egiteko bere oniritzia jaso zen. Martxoan zehar eta apirilaren lehenengo astean bi saioetako solasaldiak transkribatu ziren.

Bi talde eztabaidetatik eskuratutako datuak modu kualitatiboan aztertu ziren, bide induktiboa zein deduktiboa konbinatuz. Halaber, kategorizazioa gauzatzeko, Allporten taldearteko harremanaren hipotesian (1954) zehaztutako ezinbesteko lau baldintzak eta Pettigrewren taldearteko harremanaren teorian (1998) gaineratutako alderdia hartu ziren kontuan, hau da: a) estatus berdintasuna, b) helburu komunak, c) kideen arteko kooperazioa, d) autoritateen eta gizartearen laguntza, eta e) adiskidetasun potentziala. Azterketa prozesua hiru ikerlarien artean gauzatu zen.

Emaitzak eta eztabaida

Berdinak ote?

Elkarrizketatu gehienak bat etorri ziren adieraztean adimen urritasuna zuten pertsonak estatus berekoak kontsideratu nahi zituztela, baina bazirela hainbat alderdi hala ez izatea eragiten zutenak. Adibidez, gehien esanetan beraien ezjakintasuna dela medio beldurra zioten pertsona horiekin erlazionatzeari. Batetik, mina eman ziezaiekitelakoan beraien portaera ‘desegokiak’ eta bestetik, urritasuna zutenen jarrera ezohikoak nola bideratu ez zekitelako. Elkarrizketatuen artean baziren adimen urritasuneko pertsonekin lotura estua zuten pilotariak (familiako kide ziren), eta hauek ez zuten zailtasun hori estatus berdineko pertsona moduan onartzeko, naturaltasunez hartzen zuten harreman hori. Harrigarria (eta mingarria) egiten zitzaien gizartean gaur egun zailtasun hori eta ezberdintasun hori egin beharra. Baina, Pettigrewek (1998) nabarmentzen duen moduan, norbanakoek arteko ezberdintasunek harremanek dakartzaten eraginei forma ematen diete. Pertsona ezagutzeak asko laguntzen du horretan, bere ‘alde onak’ zein ‘txarrak’ identifikatu eta ulertuz. Federatuek

ere bat egin zuten aurreko baieztapen honekin. Hainbat esperientzia puntual izan zituzten urritasun intelektuala zuten pilotariek eta nabarmendu zuten hasiera batean sentitzen zutena segituan alda zitekeela, *goiz batean* hain zuten. Generoari dagokionez, emakumeek *sartzean ez genioke eskatuko karnetik* zioten, hau da, adimen urritasuna edukitzea ez zela inolaz ere baldintza bat izan behar taldekide izateko. Aldiz, Emakumea Pilotari proiektuaren parte direla ikusita, emakumea izatea ezinbestekotzat jo zuten. Estatus berdintasuna puskatzen zuen arrazoa gizonezkoa izatea zen, beraz.

Mutilek lehiatu eta neskek elkarrekin gozatu. Guztiek, ongi pasa eta giro onean jardun

Harremanen bidez aurreiritzi negatiboak gutxitzeko beharrezkoa da antzerako helburuak lortzera bideratutako esfortzu aktiboa gauzatzea (Allport, 1954). Euskal pilotan jarduteko helburuei dagokionez, pilotari guztiak bat zetozen adieraztean helburu nagusia ongi pasatzea zela. Hori bai, emakumeek gehiago indartu ohi zuten elkarrekin giro onean jardutea edo jende berria ezagutzea. Pilotan dihardutenean markagailua ez dute kontuan izaten, ariketetan *saltsa pixka bat* besterik ez dute behar. Mutilak, aldiz, giro ona edukitzearen garrantzia azaleratu arren, lehiaketaren gozamenak erakartzen ditu. Adimen urritasuna dutenekin izandako esperientziari erreferentzia egitean, ordea, ongi pasatzea irabaztearen aurretik kokatu zuten.

Talde bat gara eta harro gaude

Parte hartzaileak bat zetozen adieraztean talde bat osatzen zutela, bateratua eta elkar animatzen zutela euskal pilotan (eta taldean) jarraitzeko. Elkarren arteko laguntasuna pilota saiotik haratago joan ohi zen, gainera, orduz kanpo bestelako jarduerak antolatu eta berautetan parte hartzeko ohitura zutelarik. Talde izaera hori gainera, elkarte edo herri bateko taldekideen artekoa izateaz gain, talde edo klub ezberdinen artekoa ere bazela zioten. Halaber, adimen urritasuna duten pertsonekin berdin jokatu zuketela uste zuten. Taldean sartzen eta taldean ‘ardurak’ hartzen lagunduko zioten, hori baitzen, beraien ustetan, partaide izateko bidea. Emakume pilotarien kasuan, adibidez, taldean jardutea lehentasun bilakatu ohi da taldekide sentitzean, elkar laguntzeko joera nabaria izanik (Fernandez-Lasa, Usabiaga, Martos-Garcia eta Castellano, 2015).

Aurreiritziei aurre egiteko, (in)formazioa

Azpimarratzekoa da partaide gehienek beren buruaz zein gizarteaz egiten zuten kritika, *gizarte honetan guztia etiketatzeko joera dugu, eta ondorioz, beraiak [adimen urritasuna duten pertsonak] ere etiketatzen ditugu*. Eta gaineratzen zuten pertsona hauek, *guk bezala, gaitasun handiagoak eta txikiagoak dituzte*. Bakoitza den bezalako izatearen garrantzia nabarmendu nahi izan zuten hainbat partaidek, eta pertsona oro den bezalako onartzearen garrantzia. Edozein pertsonarekin erlazionatzean zerotik abiatzearen antzerako espresioak azpimarragarriak iruditzen zitzaizkien, pertsona berri batekin erlazionatzean bere izateko modua ezagutzen saiatzea, aurrez itxuragatik edo esan dizutenaren araberrako epairik egin gabe. Zenbaitek hainbat esperientzia izan zituztenez, beharrezkotzat jotzen zuten urritasuna duten pertsonekin erlazionatzean pertsona horien ezaugarrien inguruan gehiago jakitea. Beraien esanetan, erlazioa naturala izateko asko eskertuko zuketena topaketa egin aurretik formazioaren bat jasotzea. Informatuta egoteak asko lagunduko ziela uste zuten.

Hasierako jarrerak (beraienak) ez zituzten naturaltzat hartzen, nola jokatu ez jakitea oztopo izaki. Aurreiritziei aurre egiteko eta jarrera modu positiboan aldatzeko, ordea, harreman zuzena edukiko duten testuinguruak proposatzea izan daiteke gakoa (Perez-Tejero, 2012). Elkar ezagutzuz eta partekatuz lortzen da erlazionatzeko (in)formaziorik aberatsena.

Pausorik pauso, bidea eginez

Emakumeek ez zuten inolako esperientziarik izan urritasuna duten pertsonekin euskal pilotan jardutean, baina beste edozein emakume bezala, erabat irekita agertu ziren taldekide moduan onartu eta pertsona horrekin beraien momentuaz gozatzeko. Mutilek, berriz, hainbat esperientzia eduki zituzten eta topaketak puntualak izan zirela jakin arren, adiskide berriak egiteko aukera ikusten zuten. Ondorengoak nabarmendu zituzten, besteak beste: *urritasuna duen pertsonekin jokatzeko prejuizioak [aurreiritziak] kentzeko balioko liguke, ditugun beldurrei aurre egiteko, informazio gehiago eduki eta beraiekin disfrutatzen edo beste pertsona batzuk gustura ikustea ere oso gustagarria da norberarentzat*. Adiskidetasun horretatik bizipen positiboak eskuratzeko aukera paregabea lor zezaketela iruditzen zitzairen, adimen urritasuna zutenen naturaltasuna (emozioei dagokionez) nabarmenduz, adibidez. Pilotari batek adierazitako esaldi honek ongi laburbiltzen zuen beraien sentimendua: *ezagutu ondoren, beldurra galtzen diozu eta zer edo zer onaren iturri bilakatzen dira, orain, bilatu egiten ditut*. Taldekideen arteko harremana gauzatzen laguntzen duten alderdirik garrantzitsuenak afektiboak izan ohi dira (Pettigrew et al., 2011).

Ondorioak

Taldearteko harremanaren teoria abiapuntutzat hartuta, erlazio arrakastatsuak izateko ezinbestekotzat jo diren hainbat alderdi aztertu ziren ikerketa honetan. Galdekatutako pilotarien aurreiritziek eragina zuten urritasun intelektuala duten pertsonen estatusa eta berauena alderatzean, nahiz eta guztiek asmo ona agertu aurreiritzi negatibo horiek alde batera utzi eta elkarrekin euskal pilotaz gozatzeko. Aurretik izandako portaerek zein esperientziek eragina dute harreman berriak sortzean. Euskal pilotan jarduteko helburuak oztopo bilakatu daitezke inklusibitatea bere osotasunean emateko, baina ez dira baldintzatzaile garrantzitsuenak. Erlazioak egonkortu eta taldekide sentitzeko topaketa puntualak baino epe luzerako proposamen inklusiboak diseinatu eta garatu behar lirateke.

Erreferentziak

- Allport, G. W. (1954). *The Nature of Prejudice*. Cambridge, MA: Addison Wesley.
- Dieringer, S. T. eta Judge, L. W. (2015). Inclusion in Extracurricular Sport: A How-To Guide for Implementation Strategies. *The Physical Educator*, 72, 2015, 87-101.
- Fernandez-Lasa, U., Usabiaga, O., Martos-Garcia, D. eta Castellano, J. (2015). Creating and maintaining social networks: women's participation in Basque pilota. *International Journal of Sport Science*, 40(2), 129-144.
- Flem, A. eta Keller, C. (2010). Inclusion in Norway: a study of ideology in practice. *European Journal of Special Needs Education*, 15(2), 188-205.

- Haug, P. (2010). Approaches to empirical research on inclusive education. *Scandinavian Journal of Disability Research*, 12(3), 199-209.
- Kasser S. L. eta Lytle, R. K. (2005). *Inclusive physical activity. A lifetime of opportunities*. Champaign, IL: Human Kinetics.
- Pérez-Tejero, J., Ocete-Calvo, C., Ortega-Vila, G. eta Coterón-López, J. (2012). Diseño y aplicación de un programa de intervención de práctica deportiva inclusiva y su efecto sobre la actitud hacia la discapacidad: El Campus Inclusivo de Baloncesto. *RICYDE*, 29(8), 258-271.
- Pettigrew, T. (1998). Intergroup contact theory. *Annual Review of Psychology*, 49(1), 65.
- Pettigrew, T. F., Tropp, L. R., Wagner, U. eta Christ, O. (2011). Recent advances in intergroup contact theory. *International Journal of Intercultural Relations*, 35(3), 271–280.
- Reid, G. (2003). Defining adapted physical activity. In R. D. Steadward, G. D. Wheeler and E. J. Watkinson (Eds.), *Adapted physical activity* (pp. 11-25). Edmonton, Canada: University of Alberta Press.
- Reina, R. (2014). Inclusión en deporte adaptado: dos caras de una misma moneda. *Psychology, Society, & Education*, 6(1), 55-67.
- Wendelborg, C. eta Tøssebro, J. (2008). School placement and classroom participation among children with disabilities in primary school in Norway: a longitudinal study. *European Journal of Special Needs Education*, 23(4), 305-319.